

4. Praktika: SOLIDARITATEA vs TEKNIKA

Pertsonen aseguruetan egin ohi den diskriminazio nagusia gizonen eta emakumeen artekoa da. Argi dago, emakumeek bizitza esperantza luzeagoa daukatela, eta ondorioz, gizonek baino hilkortasun probabilitate txikiagoak dituztela. Begi bistakoa da, probabilitate desberdinak baditu, eta beraz, ezbeharrak gertatzeko probabilitateak desberdinak badira, bakoitzak ordaindu beharreko prima ere desberdina izan beharko lukeela. Izan ere, gaur egun dugun egoera hau da, gizon eta emakumeentzat hilkortasun taula desberdinak ditugulako.

Hala ere, nahiz eta teknikoki hau horrela dela argi ikusi, badaude zenbait mugimendu, pertsona guztiak berdina garelako diotenak, eta honenbestez haien ustetan, ez da desberdintasunik egon behar gizon eta emakumeen artean. Azken finean, aseguruaren definizioak aipatzerakoan, aseguruaren solidaritate forma bat dela argudiatu dugu. Honela, gizon eta emakumeen taula desberdinak izan beharren, unisex taulak edo taula bateratuak eratzea proposatzen dute. Honen adibide bat, Europar Batasuneko arauetan aurkitzen dugu, hauen arabera aseguratuak ezin dutelako sexuarengatiko desberdintasunik egin prezioa finkatzerako orduan, nahiz eta aseguratuak badituzten sexu desberdinen inguruko estatistikak.

Teorian ikusi den bezala, erakunde aseguratuak arriskuaren hautaketa izeneko prozesua jarraitzen dute, aseguratuaren talde homogeneoak lortzeko asmoarekin, eta bakoitzari dagokion prima aplikatzen zaio arriskuaren larritasunaren arabera. Bizi-aseguruak kontratatzerakoan ohikoa da azterketa mediku bat pasatzea eta galdetegi bati erantzutea, horren arabera tarifa desberdinak aplikatzeko. Azken baten, pertsona desberdinek beren ezaugarrien arabera probabilitate desberdinak badituzte istripuak, gaixotasunak, heriotza, etab. izateko, zergatik ez diogu bakoitzari dagokion arriskuaren arabera prima bat ezarriko?

Zientzian egiten dabilten aurrerapenak, gizakiaren genomaren aztertzeko aukera eskaintzen dabilta. Aurrerapen honekin gizakiek gaixotasun desberdinak garatzeko izan ditzaketen probabilitateak kalkulatzeko lortu daiteke, eta horrela, are gehiago diskriminatzea lor genezake, gero eta talde homogeneoagoak sortuz.

Honenbestez, bi ikuspegi desberdin daudela ikusten dugu, alde batetik teknikaren alde jotzen dutenak, bakoitzak daukan probabilitatearen arabera gero eta gehiago diskriminatu behar dela diotenak, eta bestetik, aseguruaren ikuspegi solidarioago bat aldarrikatzen dutenak, pertsona guztiak berdinak garela argudiatzen dutenak eta honenbestez, diskriminazioari mugak jarri behar zaizkiola diotenak.

EGIN BEHARREKOA:

Planteaturiko kasutik abiatuta informazio gehiago bilatzea eskatzen da. Ondoren, hausnarketa bat egin ostean, gai honen inguruan iritzia ematea, aldeko edo kontrako argudioak justifikatuz: Noraino heldu behar du diskriminazioak aseguruetan? Zerk izan behar du garrantzia handiagoa, teknikak edo solidaritateak?

PRAKTIKAKO AUTOEBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK:

Teknika eta solidaritatearen inguruko eztabaida ez da berria. Beti egon izan dira alderdi batzuk teknikaren alde jo izan dutenak, hau da, ahalik eta estatistika zehatzenak aplikatzearen alde egon direnak. Gaur egungo garapen teknologiko eta estatistikoek geroz eta gehiago diskriminatzea ahalbidetzen dute, arriskuen hautaketa hobeago bat eginez. Hala ere, geroz eta gehiago diskriminatzean aseguruaren berezko izatea desagertzen da, solidaritatean baitago oinarrituta. Adibidez, asko diskriminatzean, ezbeharrak gertatzeko probabilitate handia daukaten talde batzuk ez aseguratzea ere ekar lezake, ez litzatekeelako bideragarria izango aseguratzailearentzat pertsona hauek aseguratzea. Egoera hau teknikoki hobekuntza bat litzateke, baina era berean gizarte eragile desberdinak aurka egongo lirateke.

Beraz, praktika honetan ez dago erantzun zuzen edo oker bat, beti ere erantzuna ondo argudiatuta badago. Izan ere, hausnarketa bat egitea eskatzen da eta gairen inguruko iritzia defendatzea aldeko eta kontrako argudioak erabiliz.